Hori gutxi balitz, faltsifikatzaileak 2009tik 2012ra mozorroturik lau goitizen erabili zituen bere gezurra borobiltzeko: *Steven Gardiner*, *Mark Lanois*, eta *Arthur Scott* zein *James Brantley*; azken biokin apaiz jesuita gisa. Elizaren izenean, tori gezurra! AEBetako bazter guztietara zabaldurik zuen engainua. Harri eta zur, denok gure buruari egiten diegun galdera bera egin zion Leiningerrek: “Zergatik?”. Izan ere, Landisek ez baitzuen sekula bere jardunetik xoxik irabazi. Ondorioz, ez du deliturik. Hori dela kausa, poliziak ezin atxilotu du Landis. Gurasoei izen ona ematearren egiten zuela diote batzuk, askotan ere euren izen faltsuak emanda. Ohorearen izenean, tori gezurra!

### Filantropia ote?

Hortaz, hona bigarren galdera: filantropia ote *gezurtero* honen xedea? Erantzuteko, nor bera baino hobea: “Gauzak ikusteak bost axola dit. Ikusita ditut jada. Hori ona dela esaten duenik ba al da? Bai, hori ona litzateke”. Filantropiaren izenean, tori gezurra! Eskizofrenia-tratamenduan izan zela diote. Bipolarra omen orain.

Hirugarren galdera segidan dator: “Zenbat instituzio engainatu ote ditu?”. 17.000 instituzio izaki AEBetan... Auskalo! Jada askok badakite Landisek engainatu dituela, baina mutu geratu dira, euren hankasartzea ez onartze aldera.

Gauzak horrela, ‘Financial Times’ egunkariak 2011ean gizon honen maula argitara eman zuen, bere aitormenarekin batera. Baina, horrek ez zuen Landisen engainu-grina eten, alderantziz baizik: gaur egun bere faltsifikatzaile-ibilbidearekin jarraitzen du; bosgarren ezizen batekin. Egungo artelan-faltsifikatzaileak handiena bere horretan dirau. Aske. Engainatzeko prest. Nor ote hurrengoa? Kontuz!

## jesuita faltsifikatzailearen pintzel luzea

Iraultza faltsifikazioen bitartez. Azken hiru hamarkadotan dozenaka margolan faltsu eman ditu Mark Landis faltsifikatzaileak AEBetako hamaika museoetan. Trukean dolar bat ere eskuratu gabe. Egungo faltsifikatzaile handienetakoa dugu.



## the jesuit forger's long brush

A revolution through forgery. During the last three decades forger Mark Landis has slipped dozens of forged paintings into museums in the States. Without getting a single dollar for them. He's one of the greatest contemporary forgers.



The painter Gauguin said that art is either plagiarism or revolution; but what happens when you work on both at the same time? That is what forger Mark Augustus Landis (Virginia, USA, 1955) has managed to do, whether he really wanted to or not. He's caused quite a stir in the States with his copies of famous works of art. "The most productive of our contemporary art forgers" is how the New York Times describes him. He's even had the FBI after him. In fact, he's taken in loads of institutions in the States over the last two decades using his parents' names and forgeries of paintings by Picasso, Daumier, Signac and others. Using his parent's names, what a liar! However, Landis isn't in prison: apparently he hasn't committed any crime. But how is that possible? Here's the story:

There's no doubt that registrar Matthew Leininger's name will always be linked with Mark Landis. In 2007 Leininger was the registrar at Oklahoma Arts Museum. One day a mysterious man donated a painting by Louis Valvat. The man was Landis. At first Leininger was delighted. But when he actually met Landis he suspected that there was some hidden purpose: he seemed a pretty strange man. Very suspicious. So Leininger decided to look into the "case", amongst other things by calling museums all over the States. And the results were immediate: the very work that strange man had given Oklahoma Museum was also at the Savannah Art and Design University. The deceit was uncovered: dozens of famous artists' paintings were to be found in many small institutions all over the USA, all of them donated by Landis over the previous two decades.

As if that weren't enough, the forger used four different nicknames between 2009 and 2012 to further embellish his lies: *Steven Gardiner*, *Mark Lanois*, *Arthur Scott* and *James Brantley*, the latter two being Jesuit priests. In the name of the Church, what a liar! He took his deception to every corner of the States. Astonished, Leininger asked himself the same question we all have: Why? In fact, Landis had never earned a penny with all this activity. That's why it wasn't a crime. And that's why the police cannot arrest Landis. Some people say he did it to make his parents famous because he often used their names. In the name of honour, what a liar!

### Is he a philanthropist?

So the second question is, is he a philanthropist? There's nobody better than the man himself to answer that one: "I don't care about seeing things. I've already seen everything. Are the things they say are good all that good? Yes, they may be good". In the name of philanthropy, what a liar! They say he's being treated for schizophrenia. Now, apparently, he's a manic-depressive.

The third question quickly follows: "How many institutions has he taken in?" There are 17,000 institutions in the US, so who knows! Many of them already know that Landis took them in but have kept quiet about it so as not to admit that they put their foot in it.

In 2011 The Financial Times published a story about this con trick along with Landis' confession. But that didn't put a stop to Landis' enthusiasm for taking people in, rather the opposite: he's still at it, now using a fifth nickname. The biggest contemporary art forger is still at it. Free. Ready to deceive. Who will be next? Watch out!



ezezaguna  
stranger

Kalera atera zara zigarreta erretzera. Taberna barruan erretzeko debekuak hasera batean zenbateko amorrua eman zizun pentsatu duzu. Egun ordea, zigarreta erretzera kalera atera beharrak eskaintzen dizun tartea ordainezina dela deritzozu. Nikotina txuteaz ase zarenean, behatz katapultek espaloi hertzera bota dute zigarro-mutxikina. Tabernara sartu zara berriro. Ordu batzuk beranduago gertatuko denaz ez zara jabetuko. Lo egongo zara, edo zorte apur batekin norbaitekin larrua jotzen. Emakume misteriotsu batek, pintza batzuekin zure zigarro-mutxikina jaso eta plastikozko poltsa batean sartu du.

Hilabete batzuk beranduago kaletik oinez zoaz. Arte galeria baten erakusleihoaren aurrean geratzen zara. Bertan, paretetan esekita, giza buruak daude ehiza trofeoak izango balira bezala. Bitxia iruditu zaizu eta barrura sartu zara. Berehala zerbait arraroa sumatu duzu. Ezaguna egin zaizun aurpegi baten aurrean

gelditu zara. Bat batean konturatu zara zure 3D erretratua dela hor zintzilik dagoena.

Nola iritsi da/zara galeria horretako paretara? Nork lapurtu du zure irudia? Buru "ehiztariaren" izena Heather Dewey-Hagborg artista da. Hori jartzen du behintzat erakusketako posterrean. Katalogo bat eskuratu duzu. Atarikoan zera dio:

"inspirazio une hori terapia saio batean nengoela suertatu zitzaidan. Horman zintzilik zegoen markaturiko estampa batean zegoen piltzadura bati so geratu nintzen. Piltzadura horretan bazegoen ile bat. Horretan pentsatuz galdu nintzen eta itxuraz garrantzirik gabeko ile hura norena izan zitekeen irudikatzen hasi ere. Are gehiago, saiatu nintzen ilearen jabeak zer itxura izan zezakeen imajinatzen. Saioa bukatuta, oso argi konturatu nintzen pertsona bakoitzak bere egunerokotasunean atzean uzten duen aztarna genetikoaz. Zer ezaugarri fisiko identifika

zitezketen txikle zati batean edo zigarro-mutxikina batean utzitako ADN-tatik galdetzen nion nire buruari. Hurrengo urratsa aztarna genetiko horietariko batzuk ausaz jasotzea zen. Ikertze zientifikoa burutu eta gero itxura fizikoaren erretratua berreraikitzen dut 3D formatuan ADN-ean aurkitutakoan onarrituz."

Zure erretratuaren aurrean iltzatuta geratu zara. *Blade Runner*, *Gattaca* eta *Minority Report* bezalako filmak etorri zaizkizu burura. Eta hotzikara bat sentitu duzu bizkar hezurretik gora. Dolly izeneko ardi haren izenaz akordatu zara. Eta galeriatik ateratzeko beharra sentitu duzu. Eta aterako bidean zoazela, agian, atera behar duena zu ez zarela pentsatu duzu. Agian, oraintxe atea gurutzatu duena eta mundura atera dena zure iguala den ezezagun bat da. Agian, paretan esekita geratu dena zu zara. Zigarreta bat behar duzu.



You go outside to smoke a cigarette. You think about just how pissed off you were when they brought in the ban on smoking in bars. Nowadays, however, you feel that the short break afforded by having to go outside for a smoke is priceless. Once you've had your shot of nicotine, you flick the cigarette butt into the drain at the side of the road and you head on back inside once more. Later you will not be aware of what is going to happen. You'll be asleep, or if you're lucky, having sex with somebody. A mysterious woman carefully picks up your discarded cigarette butt with a tweezers and puts it into a plastic bag.

A couple of months later you're walking down the street. You stop at the window display of an art gallery. There, hanging on the wall, are human heads, as if they were some kind of hunting trophy. You find this strange and decide to go inside. You notice

something unusual straight away. You stop and look at a face that is somehow familiar to you. You suddenly realize that what is hanging there is a 3D portrait of yourself.

How did it/you get here? Who stole your image? The head "hunter" is the artist Heather Dewey-Hagborg. Or at least that's what it says on the exhibition poster. You pick up a catalogue. The preface reads as following:

"that inspiration moment happened while sitting in a therapy session. While staring at a framed print on the wall I began to fixate on a tiny crack in the glass into which a small hair had become lodged. As my mind wandered I began to imagine who this seemingly insignificant hair belonged to, and more specifically what they might look like. After leaving the session I became keenly aware of the genetic trail left by every person in their daily

life, and began to question what physical characteristics could be identified through the DNA left behind on a piece of gum or cigarette butt. The next step was to collect some of those genetic trails, with no other method than random. At the end, after that scientific research, I remake their physical appearance based in the DNA collected and create their 3D portraits".

You cannot take your eyes off your portrait. Films like *Blade Runner*, *Gattaca* and *Minority Report* run through your head and you feel a shiver run down your spine. The image of Dolly the sheep comes to mind and you feel the need to get out of there. And as you make your way out, you suddenly think that, maybe, the person leaving is not really you. Maybe right now the person walking out into the wide world is a stranger who looks exactly like you. Maybe you are the head hanging on the wall. You need a smoke.

## bergara abizeneko urdina

Koloreak subjektiboak dira. Eta hare gehiago kultura batetik bestera. Nork ziurtatzen digu zuk ikusten duzun gorria nik ikusten dudan bera dela? Kultura batean horia dena, zergatik ez beste batean naranja izan? Hori izan liteke, akaso, kolore zehatzek *abizena* jasotzearen zioa. Edo agian ez? Arrazoiak arrazoi, urrutira joan gabe, Euskal Herriko herri batek badu bere kolorea; kolore batek badu bere herria; edo aberria. Bergara urdina, hain zuzen. Izan ere, bergararrak ehungile apartak izaki, mendeen poderioz, industria indartsua eraiki zuten herrian. Horrenbeste, ezen *mahon* urdina *bergara urdina* izenez ere ezaguna den. Garai batean, famatuak ziren oso bertako ehunak. Espainiako Errege Katalikoen, 1497an, beren oniritzia eman zioten herri honetako

ehugileen ordenantzari; Simancaseko artxiboan gordetzen omen da horren dokumentua. Baina aragoar batek eta bi baionatarrek eman zioten bergarar ehungintzari benetako zabalkundea eta indarra: 1846an, Jose Julian Blanc-ek, Frois-ek eta Silvak *Fabrica de Hilados y Tejidos de Vergara* lantegia eratu zuten. Ospe-eztanda itzela izan zuten hango ehunek harez geroztik, hainbeste, ezen gaur egun, oraindik ere, enpresa ehungile bat baden izen horrekin! Nolanahi ere, urte gutxitan izandako aldaketek *ahantzi* egin dute gizaldi luzeetako produkzioak emandako abizena. Gure gizartea beste bide batzuetatik doa, edo, beste interes edo zaletasun batzuk ditu, antza. Izan ere, gaur egun, *Bergarako bizkotxo erreilenoak* izeneko gozoak ospetsuagoak dira bergara urdina baino.

## a blue called bergara

Colours are subjective. And even more so when you go from one culture to another. Who can guarantee that what I think is red is the same colour for you? Couldn't what is yellow in one culture just as easily be orange in another? Maybe that's why very precise colours are given first names. Or isn't it?

Whatever the reasons may be, you don't have to go very far to find a Basque town with its own colour: a colour which has its own town, its own country. Bergara blue. As the people of Bergara are expert cloth makers they have built up a powerful cloth industry over the centuries. And because of that jeans blue has also come to be known as Bergara blue. The cloth made there used to be very famous. In 1497

the Catholic Monarchs of Spain approved this town's cloth makers' regulations in a document currently housed in the Simancas Archive.

But apparently it was somebody from Aragon and two people from Baiona who really put the Bergara cloth industry on the map: in 1846 Jose Julian Blanc, Frois and Silva built the *Fábrica de Hilados y Tejidos de Vergara*. The cloth made there suddenly became extremely well known, so much so that there is still a company with that name today. However, the name given to so many generations' production has been forgotten in just a few years due to changes in society. It seems our society's going down a different route, it has other interests and enthusiasms. In fact, nowadays the *sponge cake* from Bergara is more famous than Bergara blue.

Utamaro, Kenji Mizoguchi's 1946 film  
Utamaro o meguru gonin no onna (Utamaro eta bere bost emakumeak) filmeko protagonista zen. Baina Utamaro bazen, halaber, XIX. mendearan amaieran jaioako tatuatzaile japoniar famatu baten izena. Emakumeak soilik tatuatzen zituelako zen ezaguna. Emakumeen azala bezalako mihiserik ez zegoela esan ohi zuen.

## utamaroren bost emakumeak



## utamaro's five women

Utamaro was the main character in Kenji Mizoguchi's 1946 film titled Utamaro o meguru gonin no onna (Utamaro and his five women). But 'Utamaro' was also the name of a famous Japanese tattoo artist born at the end of the 19th century. He was well-known because he only tattooed women. He would always say that there was no canvas to equal a woman's skin.



testua /text: odlok  
argazki eta parrainak/plush ladies & shots: beruta

Emperadorearen emazteak Utamaro jauregira ekarrazti du. Emperadorearekin ezkondu zenean, emakume aberats eta boteretsu bihurtu zen, baina, ordainean, zin egin zuen ez zela inoliz jauregitik aterako. Jauregiko dorreari pisu bat gehitzen dio urtero, bertatik ahalik eta gauza gehien ikusleko. Badaki, ordea, badela sekula ikusko ez duen zerbaít. Eta horixe eskatu dio Utamarori tatuatzeko: itsasoa.

The Emperor's wife has Utamaro brought to the palace. When she married the Emperor, she became a rich and powerful woman, but at a price. She had to swear that she would never set foot outside the palace for the rest of her life. Every year, another storey is added to the tower at the palace to enable her to see as far and much as possible. But she knows there is one thing that she will never be able to see. And that is what she asks Utamaro to tattoo on her: the sea.

**masako:**  
emperadorearen  
emaztea  
the emperor's  
wife





midori:  
prostituta eta  
utamaroren  
amorantea  
prostitute and  
utamaro's lover

Midori Utamaroren amorantea da. Utamarok gauero laztantzen du haren azal mihi-sea, baina ezin du bertan tatuajerik egin. Bezeroek ez dituzte tatuajeak dituzten prostitutak nahi. Utamarok, orduan, Midori-en azalaren koloreko tinta prestatzen du, eta amorantereekin beriko lotuko duen tatuaje ikusazin bat egiten dio. Tinta ikusiezinez, bihozt baten barruan giltza bat tatuatzaren dio. Modu horretan, beste inok ez dakiena daki berak: Midori-en bihoztaren giltza berak duela.

Midori is Utamaro's lover. Every night Utamaro caresses the canvas that is her skin but he can't tattoo her. Clients don't want prostitutes with tattoos. Utamaro prepares a special ink the colour of Midori's skin and gives her an invisible tattoo that will bind them together forever. With his invisible ink, he tattoos a key inside a heart. This way he knows something that nobody else will ever know: he has the key to Midori's heart.



kazumi:  
etorkizunetik  
etorritako mamua  
a ghost from  
the future

Ametis batean azaldu zaito Utamarori Kazumi. Ametsean, Kazumik heriotza inguruan dabilkola ohartarazten dio. Utamarok, ordainean, aingura bat tatuatzen dio. Ainguraren pisuek, mamu ez direnen artean ainguratutrik bizitzeko aukera emango dio Kazumiri

Kazumi appears to Utamaro in a dream. In the dream she warns Utamaro that death is coming for him. Utamaro, to repay her for her warning, tattoos an anchor. The weight of the anchor holding her down allows Kazumi to live amongst non-ghost folk.

II. Mundu Gerraren erdialdean gaudu, eta Tomomi, bere burua gizon gisa mozorrotu eta kamikazeen eskudarioan eman du izena. Utamarorengana doa eta enarra baten tatuajea egiteko eskatzen dio. Enaren hegaldia trebea, aldakorra eta azkarra da, eta hori da, hain zuzen ere, bere hegazkinarekin objektiboa jo arte etsaiaren tiroak ekiditeko behar duena. Utamarok, pilotu jakak estaliko duen tatuajea egiten dio bizkarrean. Tatuajea egin bitartean, Utamaro isilik egon da. Enarak beti itzultzen dira etxera, eta Utamarok badaki hori ez dela irudirik egokiena kamikaze batentzat.

It's the middle of WWII and Tomomi dresses up as a man to volunteer as a kamikaze pilot. She goes to Utamaro and asks him to tattoo a swallow because the swallow is a swift, shifting skilful flier that will enable her aircraft to evade enemy fire until it reaches its target. Utamaro draws the tattoo that will be covered by her pilot's jacket. As he draws he remains silent. He knows that the swallow always returns home and that this is not an appropriate image for a kamikaze pilot.

## tomomi: emakume kamikazea kamikaze woman



kokoro kuro:  
heriotza  
death



Atea jio gabe, Kokoro kuro Utamaroren tatuaje estudioa sartu da. Berak aukeratzan duen edozein irudi tatuatzeko eskatu dio. Lanean bere trebetasun guztia jartzeko eskatzen dio, hori izango delako bere azken tatuajea; izan ere, amaitu bezain pronto, heriotzak berarekin eramango du.

Utamarok, sarraila bat tatuatzan dio bihotz baten barruan. Baina tatuajea giltzarientzat tatuatu gabeko espazioa uzten du. Heriotzari esaten dio ezin duela amaitu, giltza beste emakume baten gorputzean tatuatu zuela. Heriotza, giltzarik gabe tatuajea amaitu gabe geratzen dela jabetzean, haserre, zera esaten dio Utamarori: "beste emakume hori topatuko dut, larritu dut eta giltza kenduko diot. Eta hori gertatzen denean, emakumea eta zu eramango zaituztet nirekin."

Utamarok barre egiten du. Azken finean, ez da hain ideia txarra izan bere maitalearen azalean berak bakarrik ikus dezakeen giltza tatuatu izana.

Without knocking on his door, Kokoro kuro walks into Utamaro's studio. She asks him to tattoo anything he chooses himself. She asks him to use all his skill for this tattoo because it will be his last. As soon as he is finished, she will take him with her. Utamaro draws a heart with a lock inside but leaves a space for where the key should be. He tells Death that he cannot finish the tattoo because he has tattooed the key on another woman's body. When Death realizes that without the key the tattoo cannot be finished, she becomes furious and tells Utamaro "I will find that other woman, skin her and make the key mine. And when that happens, I will take you and the woman both with me."

Utamaro laughs. In the end it wasn't such a bad idea to give his lover a tattoo that only he could see.

**ENTZUN!**

**EUSKAL YE-YEAREN HISTORIA AHAZTUA**  
**BENITO LERTXUNDI**  
**BALERDI BALERDI GATIBU**  
**NUEVO CATECISMO CATOLICO**  
**BIZARDUNAK LEIHOTIKAN**  
**WILHELM & THE DANCING ANIMALS**  
**EUSKAL GAZTETXEAK GAUR EGUN**  
**MUTURBELTZ JOSEBA IRAZOKI**  
**MARIVI IBARROLA, 80ETAN TIROKATU**  
**ZUEN ARGAZKILARIA BETAGARRI GOSE**  
**SPACEMEN 3, HEGALDI LISERGIKOA GLAUKOMA**  
**EUSKAL MUSIKAREN ANEKDOTAK AUSSIE PUNK**  
**HARDCORE LATINO A BELAKO ETTA JAMES CAPSULA**  
**BLACK SABBATH IHESKIDE MEIDO U.K. BILL ZULOAK**  
**CRETINOS SEX PISTOLSEN OPORRAK EGUZKIPKAN**  
**HUMILITATE EUSKADIKO MUSIKARI ELKARTUAK**  
**SEIURTE LAUROBA REVOLUTIONARY BROTHERS**  
**GURE GAUZA ELKARTEA HOT WOK ANJE DUHALDE LAYO RASER...**

**+ CD**

**Entzun!**  
 disko-liburua  
 jada kalean!

15€

**BILDUMA 2012**

**ENTZUN!**

JOSEBA IRAZOKI  
 Iroan daude 02'39

MUTURBELTZ  
 La dabilu 03'24

CRETINOS  
 Atom 02'52

ORA KIDS  
 01'57

IZAKI GARDENAK 11  
 Sagarrata 03'23

BALERDI BALERDI 12  
 Hegoak (In Dylan  
 imitatione) 03'21

BIZARDUNAK 13  
 Barrezka 03'20

WILHELM & THE  
 DANCING ANIMALS 14  
 Finsterre 03'37

TRIZAPS 15  
 Trifunka 02'30

GLAUKOMA 16  
 Itzuli ezin 04'56

REVOLUTIONARY BROTHERS  
 & HERMANO L 17  
 Brothers en el Asfalto 03'09

GOIENETXE ANAIK 18  
 Ania Nagusia 03'58

SEBASTIAN BAND  
 02'19

Hil da Europa 03'01

SEIURTE  
 Insert Coin 03'18

INIGO CABEZAFUEGO  
 El traje del emperador 02'55

Edizio mugatua.

Egin zaitetz harpide edo egizu zure  
 erreserba entzun@entzun.com-en edo  
 948121976 telefonora deituz

Aholkularitza textil teknikoak & marka sorrera.

**oninart**<sup>TM</sup>

textil communication eta abar · komunikazio textila & more

SERIGRAFIA · BORDATUA · TRANSFERRA  
 SCREEN PRINTING · EMBROIDERY · TRANSFER



DESALDE &  
 NOTHING  
 THE BALDE &  
 EVERYTHING

**the balde**  
 -roentzako



tratu  
 berexia.

**buabxabal**  
 is powered by us

**showroom**

Plaza zaharra 5  
 31770 Lesaka (NA)  
 948 637 167 · 686 970 618  
 oninart@oninart.com  
 www.oninart.com

**Versus**

KARLOS LINAZASORO



Naufrago bat,  
 uharte galdu bat,  
 99 istorio zoro,  
 99 mezu botilan,  
 99 ihes-ahalegin.

**elkar**

**bizi literatura**

www.elkarargialetxea.com



passolini

roma:  
la città,  
la vita,  
la morte

### 3 - via giacinto carini

Ekonomia pertsonala apur batean hobetuta, erdigunerago egin du orain, Bertoluccitarrak hartzen dituen eraikin berera. Orain hasi da besterentzako pelikula gidioak idazten, Erromako bizitza intelektual eta artistikoko leku egiten, lagunak: Bernardo, noski, Fellini, Alberto Moravia betirako. Piazza Navona, Piazza del Popolo, Campo de' Fiori dira bizitza berri horretako geltokiak.

*Having improved his financial situation somewhat, he moved to the centre of town, to the same building where the Bertoluccis lived. He started writing film scripts for other people, taking part in intellectual life in Rome and making friends with artists: Bernardo, of course, Fellini and Alberto Moravia, a life-long friend. Piazza Navona, Piazza del Popolo, Campo de' Fiori are the cardinal points in that new life of his.*

### 6 - ostia

Bi etxe eraikiarazi ditu, biak ere Erromagandik gertu, baina biak ere Erromagandik aski urruti. Bigarrena itsas ertzean; gutxi disfrutatuko du, 1975eko udan joan baita bertara bizitzera. Petroleo eleberri totala, Salò pelikula dira Pasoliniren azkenak. Azaroaren 2ko goizean aurkitu dute haren gorpu sarraskitua, Ostiako hondartzan. Gau hartan gertatu zenaz ezer gutxi dakigu, idazle-zinegile handi bat finatu zutenaz bestera.

*He had two houses built, both quite close to Rome but not too close either. The second, close to the sea, he was not able to enjoy much: he went to live there in the summer of 1975. Petroleo was Pasolini's last complete novel and Salò his last film. On 2nd November they found his body torn apart on the beach at Ostia. We know very little about what happened that night except that a great writer and filmmaker was killed.*

### 5 - via eufrate

Mussolinik eraikitako egoitza-auzo lasai batean erosi du Pasolinik apartamentua, "nire ehorzketaren etxea". Erromak jarraitzen du izaten erdigune, baina urrutze gero eta nabarmenago bat hasi da: ezin ditu jasan kontsumo gizartearen ondorio suntsitzaileak, langileen kulturaren inozentzia galera. *Il Vangelo secondo Matteo* (1964) Italia hegoaldean filmatuko du, *Comizi d'amore* (1965) Italia osoan zehar; baina *Edipo re* (1967) Marokon, *I racconti di Canterbury* (1972) Ingalaterran, Egipto, Iemen, India, Iran, Eritrea, Afganistan, Nepalen *Il fiore delle Mille e una notte* (1974).

*Passolini bought an apartment ("my production house") in the production district which Mussolini had built. Rome was still the centre for him, but it was apparent that he was moving further and further away from it: he cannot stand the destructive consumer society and the loss of the workers' innocent culture. *Il Vangelo secondo Matteo* (1964) he filmed in the south of Italy; *Comizi d'amore* (1965) throughout Italy; *Edipo re* (1967) in Marroco; *The Canterbury Tales* (1972) in England; *Il fiore delle Mille e una notte* (1974) in Egypt, Yemen, India, Iran, Eritrea, Afghanistan and Nepal.*

## 2 - rebibbia

Periferiako auzo pobre bat du bizileku, Ponte Mammolo, Rebibbiako kartzela ondoko etxe bat teilaturik ere gabea. Heriotzara kondenatutako bat bezala bizi da, bere hitzetan. Baina hortxe ezagutuko ditu gerora lehengi izango dituen aldrietako langilegoa, bere hizkera, kultura, bizitasun bortitza. Hortxe eta Tiber ertzeko maitasunetan. *Ragazzi di vita* (1955) eleberrian jaulkiko ditu estreinako aldiz horiek guztiak.

*He lived in a poor suburb, Ponte Mammolo, in a roofless house next to Rebibbia prison. He lived like somebody condemned to death, in his own words. But it was there that he also got to know the things that were going to be his raw materials: workers, their way of speaking, their culture and violent lifestyle. That and love on the banks of the Tiber. Ragazzi di vita (1955) was the first novel in which he used all these things.*

## 1 - tazione termini

1950eko urtarrilaren 28an iritsi da Pasolini Erromara amarekin, aita atzean Friuliko Casarsan utzita lotan. Militante eta poeta gaztea irakaskuntza publikotik egotzi dute, alderdi komunistatik, ustez nerabeekin ukikitzeak edukitzeagatik. Absolbituko dute, baina lur erreka du jada jaioterria. Bizitza berri bat aurrean, geografia berri bat besterik ez bada. Garai bateko Alberdaniak atera zion euskaraz Friuli hartakoak biltzen dituen *Gauza baten ametsa* (1938).

*Pasolini reached Rome on 28th January, 1950, with his mother, having left his father back in Casarsa, Friuli. The young militant poet had been thrown out of public education and from the Communist Party because he was believed to have molested a teenager. He was absolved, but the damage was done. He had a new life in front of him, even if that only meant a new geographical location. Alberdania published the book he wrote in Friuli A Dream about a Thing in Basque in 1938.*

## 4 - ina-casa tuscolano

Baina idazlea zinema egiten hasi da: *Accatone* (1961), *Mamma Roma* (1962), *La ricotta* (1963). Hiru horiek osatzen dute Pasoliniren trilogia erromatarra. *Mamma Roma*-k dauka mezu argigarria: Anna Magnanik jokatzeko duen pertsonaiak uzten du auzo herrikoia, INA-Casa Tuscolano eraiki berri txukunagora joateko. Burgestze prozesu horrek, ordea, ez du filmean familia bere halabeharretik askatzeko boterea.

*And the writer started making films: Accatone (1961), Mamma Roma (1962), La ricotta (1963). Those are the three films in Pasolini's Roman Trilogy. Mamma Roma has an illuminating message: the character played by Anna Magnani leaves her home district and goes to the newer, neater INA-Casa Tuscolano building. In the film, however, this process of gentrification does not save the family from its problems.*

Tabakalerak antolatutako *Zinea pertzepzioa eta muturreko egoerak* izeneko tailerrean izena eman genuen. Bertan, Garbiñe Ortegak bideratuta, zinema esperimental garaikideko bi izen, beno, izena konpartitzen duten bi abizen ezagunek, Rivers eta Russell, beren lanak erakutsi zizkiguten.

Rivers-en lana, organikoagoa, zinematografikoagoa da. 16 mmtan filmatu, eta berak errebelatzen du material guztia. Bere lanetan, kutsu dokumentaleko piezetan, begirada antropologikoa nabarmena da. Russellen lanak ere kutsu antropologikoa du, baina zentzu akademikoago batean. Russellen lanean arrazoiak, zentzuak, pisu berezia du. Zinema formatuaren manipulazio-maila nabarmenagoa dela esango genuke. Rivers-en kasuan, badirudi guztiak instintuak eta zoriak bideratua dela.

Zinema esperimentalaren inguruan pizten den betiko eztabaidaz paso egingo dugu zuzenean. Gaindituta dagoela uste dugu. Bide berriak ibili eta beldurrik gabe begiratzeko aukera hartzen duen film eta egile oro definituenez esperimental gisa. Ikus-entzunezkoak eskaintzen dituen aukerak askatasunez erabiltzea da esperimintatzea. Askotan, ordea, aipatutako askatasun hori, gehiegizko intelektualizazio baten pean erortzen da. Kontzeptualizazioak guztirako arrazoi eta egitura teorikoak bilatu eta azaldu beharrak, hain zuzen ere, zinemak berezkoa duen magiaren kontra ez ote duen egiten galdetzen diogu behin baino gehiagotan geure buruari.

Bi egileen bakarkako lanak ikusteaz gain, interesgarria dena da, berez, status bat duten bi egile hauek elkarrekin filmak egiten hasi izana. Nola gidatu film bat bi Ben direnean gidari? Elkarlan honen eta biak batzen dituen "utopia" kontzeptuaren inguruko hausnarketa interesgarriek, besteak beste, *A Spell To Ward Off The Darkness* filmera garamatzate. Hain zuzen ere biek amaitu eta erakutsi berri duten lan bitxira: hippy komuna batean antolatutako elkarbizitza, basoan barna eginiko walk-movie eta row-moviea, western liserrikoa eta Eskandinabiako black metala batzen dituen lana.

We signed up the workshop organised by Tabakalera about *Cinema, Perception and Extreme Situations*. Garbiñe Ortega led the workshop and two names in contemporary experimental cinema (in fact, they have the same name, so let's say two surnames), Rivers and Russell, showed us their work.

Rivers's work is more organic, most cinema. He films everything in 16mm and reveals everything himself. His films, which seem quite documentary, are clearly guided by anthropology. Russell's work, too, has an anthropological touch, but in an academic sense. Reasoning is especially important in Russell's work. We'd say his manipulation of the format is more apparent. In River's case it seems that instinct and luck are everything.

Let's not talk about the eternal debate about experimental cinema. We think that's a thing of the past. Any film which takes new paths and looks at things without fear, and any author who does this, is experimental. Experimenting is using the options which audio-visuals give us in freedom. All too often, however, that freedom is over intellectualised. We often wonder if conceptualising, collecting and explaining all the reasons and theoretical structures isn't going against cinema's special magic.

As well as both author's individual work being interesting, these two well-considered authors have now started making films together. How can these two Bens direct a film together? This shared project and interesting reflections about the concept of the "utopia" they make up lead us, amongst other things, to their film *A Spell To Ward Off The Darkness*. The singular work they have just shown us brings together the shared lifestyle of a hippy commune, a walk movie and a row movie inside a forest, an acid western and Scandinavian black metal.

## ben & ben utopiaren bila searching for utopia

benrivers.com  
vimeo.com/dimeshow





santiago lorenzo



Francisco Garcia Grapoko kide da. Bere ametsak, sasia bizi den GRAPO kide zintzo batenak dira: justizia soziala, eta poltsikoan tabako pakete bat izatea. Halako batean, Franciscori primitiva tokatzen zaio. Une horretan bertan hasiko da bere drama partikularra. Franciskok ez du NAN-ik. 90 egun ditu loteria kobratzeko baina ezin du. Honela hasten da Santiago Lorenzoren *Los Millonarios* nobela.

Santiago Lorenzo Portugaleten jaio zen 1964an. Izpiritu librerik, kontrolik gabeko sateliterik existitzen bada, izaki hori Santiago Lorenzo da. Aro digital aurreko edozein jardueratan mago bat da Santiago. Eskulangintzarako dohain berezi batekin jaio zen gizona. Eta pazientzia santuarekin ere bai. Horren lekuko, urteetan egin eta pilatu dituen maketak. Tren eta tren geltokiak, barkuak, hegazkinak, eraikinak... denetarik egin du Lorenzok, eskala txikian. Plastilinez eginiko panpinekin animaziozko pelikulatxoak egiten hasi zen. Hezur haragizko "panpinekin" ere animatuko zen beranduago. 90eko hamarkadan eginiko film laburrei esker bere izena ezagun egiten hasi zen. *Bru, Es asunto mío*, *Manualidades*, *Caracol Col Col* film laburren ostean iritsiko zen bere lehendabiziko film luzea: *Mama es Boba* (1999); egun, kultuzko filmen kategorian dagoena zalantzarik gabe. Komedia gazi-gozo honetan, Palentziako nerabe baten istorioa kontatu zigun eta inork baino lehenago eraman zuen pantaila handira gerora *bullying* izenez ezagutu dugun fenomeno. Pelikula aurreratu egin zen. Ez zuen merezitako oihartzunik lortu. Hamarkada bat beranduago arrakasta lortuko zuen post-umore (chanante-muchachada-noguera-venga monjas...) gisa ezagutzen dugun fenomenoaren aitzindaria izan zen ezbaierik gabe.

Filmen eszenografian lan egiten du Lorenzok. Esan dugu esku trebeko artisaia dela. 2007an *Un buen día lo tiene cualquiera* filmatu zuen. Eszenografia egile orok dakien moduan, zineak oso gutxi du egiatik. Eta Santiago Lorenzo bezalako ogi puskek ez dute gehiegi irauten uso-arratoien mundu horretan. Zine munduaz paso egin zuen, eta bere istorioak, gidoi formatuan baino, eleberrri gisa idazteari ekin zion. Lorenzoren idatzietan, ironiak eta esperpentoak bat egiten dute. Bizi dugun gizartearen inguruko kritika zorrotz eta zehatzaren ostean, bat-batean, egoera surrealista eta sinesgaitza dator. Beti ere bere pertsonaiei egiazotasun apurrik galduarazi gabe. Rafael Azconarekin konparatzen duten bakoitzean, Lorenzo lotsatu egiten da. Baina badu haren usainik. Aipatutako *Los Millonarios* liburuaz gain, *Los Huerfanitos* izeneko ere kalean du. Azken horretan, zorrez beteta dagoen antzoki bat heredatzen duten anaia batzuen komeriak kontatzen dizkigu.

